OÑATI dabilen herria

OÑATIKO UDALA

# Auzobideen eta egurra kargatzeko leku publikoen erabilera, kontzerbazioa eta zaintza arautzen duen ordenantza

## HITZAURREA

Udalerriko auzo-bideak edo -pistak, gehienetan, auzotarren etxeak elkarrekin lotzeko bideak dira; auzoa herrigunearekin edo bide nagusi batekin lotzeko; edo auzoa herri-mendietako lursailekin lotzeko. Lursail partikularretan sortu ziren eta baserritarrek berek auzolanean mantendu zituzten. Antzina-antzinako erabilera publikoa da bide baten jabari publiko izaera aitortzeko oinarria, gehienetan eskuratze-preskripzioaren bidez.

Bide horiek erabilera-baldintza onetan mantentzeko, beharrezkoa da, neurri batean, erabilera arautzea. Izan ere, modu intentsiboan eta neurriz kanpo erabiltzeak zorua hondatzen du, eta horrek bidearen erabilera arruntari eragiten dio.

Erabilera intentsiboa, batez ere, egurra ateratzeko lanetan egiten da; bidaia asko, material tona ugari eta lanak egiteko ibiligailu handiak erabilltzen dira-eta.

Toki erakundeen eskumena da Udalaren titulartasuneko hiri- eta auzo-bide publikoak antolatzea eta kudeatzea, kontserbatzea eta mantentzea barne. (2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa, 17. artikulua)

Hori guztia kontuan izanda, auzo-bide publikoen erabilera arautzea beharrezkoa da, bide hauen kontserbazioa eta mantentze egokiak bermatu daitezen.

# Ordenanza reguladora del uso, conservación y vigilancia de los caminos rurales y de los cargaderos públicos de madera

## PREAMBULO

Los caminos o pistas municipales vecinales, son en la mayoría de los casos, caminos para unir las casas de la vecindad entre sí; la vecindad con el núcleo urbano o con una vía principal; o bien la vecindad con sus terrenos de monte comunal. Fueron creados en terrenos particulares y mantenidos en auzolan por los propios baserritarras. El uso público inmemorial es la base para dictar el carácter demanial de un camino obtenido en la inmensa mayoría de las veces por prescripción adquisitiva.

Para que los citados caminos se mantengan en buenas condiciones de uso, es preciso regular en alguna medida dicha utilización. Cierto es que su uso intensivo y desproporcionado genera deterioros del firme que afectan al uso común del camino.

Son, principalmente, las labores de saca de madera las que realizan dicho uso intensivo de las mismas, debido al gran número de viajes, gran tonelaje de los materiales y dimensiones de los propios vehículos utilizados para realizar las labores.

Es competencia de las entidades locales la Ordenación y gestión, incluidas conservación y mantenimiento, de las vías públicas urbanas y rurales de titularidad municipal dentro del término municipal (Artículo 17 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi)

Por todo ello, es necesario regular el uso de los caminos públicos rurales para garantizar su conservación y mantenimiento adecuado.

## I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

**1. Artikulua. Helburua eta eskuduntzak**

1.- Oñatiko Udalaren Ondasunen Inbentarioan jasotako auzobideen kontserbazioa, erabilera eta zaintza arautzea.

2.- Udalak aitorturik dituen ahalmenen eta eskumenen indarrez, lege-araubide honen barruan sartzen da; errepideen eta bideen plangintza, finantzaketa, proiektua, eraikuntza, aldaketa, kontserbazioa, ustiaketa, erabilpena, defentsa, zerga-araubidea, trafiko antolaketa, eta bideen zaintza eta kontrolarekin zerikusirik duen guztia; halaber, arau-hausteak salatu eta zigortzea, ibilgetzeko kautelazko neurriak hartzea, ibilgailuak bide publikotik eraman eta gordetzea, abandonatutako ibilgailuak, eta ordenantzaren xedearekin zerikusirik duen beste edozein alderdi.

3.- Zuzenbidearen iturriak:

- 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena
- 1372/1986 Errege Dekretua, ekainaren 13koa, Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen duena
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa
- Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legea.
- 1/2006 Foru Dekretu Arau-emailea, Gipuzkoako Errepide eta Bideen Foru Arauaren Testu Bateratua onartzekoa

**2. Artikulua. Aplikazio eremua**

Honako auzo-bideei eta egurra kargatzeko leku publikoei aplikatuko zaie ordenantza hau:

1. Oñatiko Udalaren jabetzakoak direnak eta zolatuta dauden bide publikoak (2015eko ekainaren 19ko GAOn argitaratutako zerrendan agertzen direnak).

2. Udalak berak administra ditzan, beste administrazio-erakunderen batek Udalari laga dizkion errepide eta bideak.

3. Egurra kargatzeko lekuak, *01 eranskinean* jaso direnak (pribatuak eta publikoak ezberdinduta).

Ordenantza honetatik kanpo geratzen dira Udalaren

## CAPÍTULO I.DISPOSICIONES GENERALES

**Artículo 1. Objeto y atribuciones**

1.- Regular el uso, conservación de y vigilancia de los caminos rurales incluidos en el Inventario de Bienes del Ayuntamiento de Oñati.

2.- En virtud de las facultades y competencias que tiene reconocidas el Ayuntamiento, se incluye en el régimen legal la planificación, financiación, proyectos, construcciones, modificaciones, conservación, explotación, utilización, defensa, régimen fiscal, organización del tráfico y todo lo relacionado con su vigilancia y control, así como la denuncia y sanción de las infracciones, la adopción de medidas cautelares de inmovilización, el traslado y conservación de vehículos por vía pública, los vehículos abandonados y cualquiera que sea el objeto de la competencia.

3.- Fuentes del Derecho:

- Ley 7/1985, reguladora de las Bases de Régimen Local
- Real Decreto 1372/1986, de 13 de junio, por el que se aprueba el Reglamento de Bienes de las Entidades Locales
- Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi
- Ley 33/2003, de 3 de noviembre, del Patrimonio de las Administraciones Públicas.
- Decreto Foral Normativo 1/2006 por el que se aprueba el Texto Refundido de la Norma Foral de Carreteras y Caminos de Gipuzkoa

**Artículo 2. Ámbito de aplicación.**

La presente Ordenanza será de aplicación a los siguientes caminos y cargaderos de madera:

1. Los que sean propiedad del Ayuntamiento de Oñati y los caminos públicos en trazado pavimentado (los que figuren en la lista publicada en el BOG de 19 de junio de 2015).

2. Las carreteras y caminos cedidos al Ayuntamiento por otros organismos administrativos para su administración.

3. Puntos de carga de madera recogidos en el anexo 01 (diferenciados públicos y privados)

Quedan excluidos de esta Ordenanza los caminos

Ondasunen Inbentarioan jaso gabe dauden beste auzoa-bideak.

**3. Artikulua. Errepide eta bideen katalogoa**

Udalak udalerriko errepide eta bideen katalogoa onartu eta eguneratuta izango du, eta horrek, inbentario izaera izango du.

**4. Artikulua. Eskumenak eta zaintza**

1. Oñatiko Udalari dagokio herri barruko bideetan eginkizun teknikoak eta zaintza- eta zehapen-eginkizunak betetzea, bide horiek udal-titulartasunekoak edo udal-administraziokoak badira.

2. Udalak izendatutako langileek zainduko dituzte bide horiek, eta haien zeregin nagusia izango da bide-sarea ikuskatzea; baita, erabilera eta kontserbazioa bermatzeko, bideak eta bide horiek babesteko azalerak egoki erabiltzen direla ziurtatzea ere.

3. Zaintzaz arduratzen diren langileek arau-hauste guztiak salatu ahal izango dituzte, eta arau-hausteak ezagutzen badituzte, arau-hausleak eta arau-hausteari buruzko datuak identifikatu ahal izango dituzte.

## II.KAPITULUA.ERABILERA, KONTSERBAZIOA ETA ZAINTZARI BURUZKO ARAUAK

### II.1. ERABILERA

**5. Artikulua. Errepide eta bideen erabilera arrunta**

1. Herritar guztiek daukate Oñatiko errepide eta bideetan barrena ibiltzeko eskubidea, trafiko eta zirkulazioari buruzko legeak, arauak eta seinaleak errespetatuz.

2. Zirkulazioari eta bide segurtasunari buruzko araudian xedatutakoarekin bat etorriz, erabiltzailea errepide eta bideetan barrena dabilenean, bere arriskuz eta menturaz dabil eta berea du erantzukizuna.

3. Administrazioak edo ustiatzaileak ez dute gertatutako zauri edo kalteengatik erantzukizunik izango, baldin eta ezinbesteko arrazoirik egon bada edo gertaeren erruduna kaltetua bera edo beste norbait izan bada.

forestales y rurales no incluidos en el Inventario Municipal de Bienes.

**Artículo 3. Catálogo de carreteras y caminos**

El Ayuntamiento aprobará y mantendrá actualizado el catálogo de carreteras y caminos del municipio, lo que tendrá carácter de inventario.

**Artículo 4. Competencias y vigilancia.**

1. Corresponde al Ayuntamiento de Oñati el ejercicio de las funciones técnicas, de vigilancia y sancionadoras en los caminos del municipio de titularidad o administración municipal.

2. Estas vías serán custodiadas por personal designado por el Ayuntamiento, cuya función principal será la inspección de la red viaria y la correcta utilización de dichas vías y de las superficies destinadas a su protección, con el fin de garantizar su uso y conservación.

3. El personal encargado de la vigilancia podrá formular denuncias de todas las infracciones que se cometan y, si conoce las infracciones, identificar a los infractores y los datos relativos a la infracción.

## II. CAPÍTULO. NORMAS DE USO, CONSERVACIÓN Y VIGILANCIA

### II.1. USO

**Artículo 5. Uso común de carreteras y caminos**

1. Todos los ciudadanos tienen derecho a circular por las carreteras y caminos de Oñati, respetando las leyes, normas y señales relativas al tráfico y a la circulación.

2. Cuando, de conformidad con lo dispuesto en la normativa sobre circulación y seguridad vial, el usuario circule por carreteras y vías, lo hace por su propio riesgo y ventura y suya es la responsabilidad.

3. La Administración o el explotador quedarán exentos de responsabilidad por las heridas o daños sufridos, cuando concurran causas de fuerza mayor o cuando el responsable de las lesiones haya sido el propio perjudicado u otra persona.

**6. Artikulua. Erabilera orokorraren eta erabilera berezien mugak**

1. Oñatiko errepide eta bideetan barrena ibiltzeko ez da egongo, normalean, zirkulazioari eta bideko segurtasunari buruzko legeriak eta aplikazio orokorreko gainerako lege, arau eta ordenantzek ipinitako mugak besterik.

2. Oro har, auzobide guztietatik zehar zirkulatzeko gehieneko abiadura 30 km/ordukoa izango da.

3. Debekatuta dago 9 tn/ardatz baino gehiagoko masa daramaten ibilgailuekin ibiltzea, izan bi ardatzetakoak edo hortik gorakoak, atoia eraman edo ez (Ibilgailuen Erregelamendu Orokorra onartzen duen 2822/1998 Errege Dekretuak xedatutakoaren arabera)

4. Bidearen jabe den administrazioak, hala ere, errepidean edo bidean ibiltzeko zenbait muga ipini ahal izango dizkie ibilgailu jakin batzuei edo denei, errepidearen edo bidearen eraikuntza-ezaugarriek (neurriak, aldapak, bidearen zabalerak, etab.) hala eskatzen dutenean, trafiko-arazoengatik, edo ingurumena babestu beharrak eskatzen duenean.

5 Mugak izan daitezke errepidean edo bidean barrena ibiltzeko debekua nahiz baldintza jakinetan ibili beharra, edota administrazioaren baimena behar izatea, zein biak aldi berean.

6. Mugak aldi baterako, edo bide-tarte jakin baterako izan ahalko dira; eta baita, erabili beharreko ibilgailuaren ezaugarrien araberakoak izan, hau da: pisua, neurriak, errodadura sistema, etab.

7. Ezar daitezkeen mugak 15 egun baino gutxiagoko epean jakinarazi beharko dira, 8. artikuluan araututako erabilera bereziaren aurretiazko jakinarazpena jasotzen denetik zenbatzen hasita.

**7. Artikulua. Erabilera berezia**

Erabilera berezitzat hartuko da salgaiak ibilgailu astunekin garraiatzea 20 tonatik gora, hala nola: zura garraiatzea, hondeaketa-materiala eta/edo eraikuntza-lanetarako materialak zerikusia dutenak.

Baserriko eguneroko ustiapenarekin zerikusia duten garraioak (pentsu edo bazka-garraioak, simaurrak eta antzekoak) salbuetsita geratuko dira.

Halaber, erabilera berezitzat hartuko dira honako hauek:

**Artículo 6. Limitaciones al uso general y a los usos especiales**

1. La circulación por las carreteras y vías de Oñati se limitará, con carácter general, a los límites establecidos por la legislación de circulación y seguridad vial y demás leyes, normas y ordenanzas de general aplicación.

2. Con carácter general la velocidad máxima de circulación por todos los caminos rurales será de 30 Km/hora

3. Se prohíbe circular con vehículos de masa superior a 9 tn/eje, ya sean de dos o más ejes, con o sin remolque (según lo dispuesto en el Real Decreto 2822/1998, por el que se aprueba el Reglamento General de Vehículos)

4. No obstante, la Administración propietaria de la vía podrá imponer determinadas limitaciones a la circulación por la carretera o por la vía a determinados vehículos o a todos cuando las características constructivas de la misma (dimensiones, pendientes, anchura de vía, etc.) así lo requieran, por razones de tráfico o por razones de protección del entorno.

5. Pueden ser restricciones la prohibición de transitar por la carretera o la vía, así como la obligación de transitar en determinadas condiciones, o necesitar autorización administrativa o ambas a la vez.

6. Los límites podrán ser temporales o para un tramo determinado de la vía, así como en función de las características del vehículo a utilizar, tales como peso, dimensiones, sistema de rodadura, etc.

7. Las posibles limitaciones que se pudieran establecer deberán ser comunicadas en un plazo inferior a 15 días desde la recepción de la comunicación previa del uso especial regulada en el art. 8.

**Artículo 7. Uso especial**

Se considerará uso especial el transporte de mercancías con vehículos pesados por encima de 20 Tn, tales como: el transporte de madera, material de excavación y/o materiales de obras construcción.

Quedan exceptuados los transportes relacionados con la explotación diaria del caserío (piensos o forrajes, estiércoles y similares)

Así mismo se considerarán usos especiales los siguientes:

1.- Beldar ibilgailuak, kate-ibilgailuak, bi ardatz baino gehiagoko ibilgailuak, edo zoruaren edo antzekoen gainetik edozer arrastatzea.

2.- Karabanan lau ibilgailu motordunetik gora zirkulatzea.

**8. Artikulua. Erabilera berezia egiteko aldez aurreko jakinerazpena**

Erabilera berezi bezala kontsideratuko kasuetan, erabilera berezia egin aurretik, bideak erabili behar dituzten partikularrek eta/edo kontratistek dagokion jakinarazpena egin beharko diote Udalari. Jakinarazpenak gutxienez honakoa jasoko du:

- Erabiltzailearen identifikazio-datuak.
- Erabiliko diren bideak.
- Garraiatu beharreko materialen pisua edo egur bolumena guztira
- Garraioa noiz hasi eta noiz bukatuko den
- Materialak pilatu behar badira, grafikoki adieraziko da zein lekutan (*izena eta katastro–erreferentzia kodea*)
- Egur ustiaketarako bada, egurra mozteko baimena eta aprobetxamenduaren bolumena.
- Garraioari lotutako bestelako baimen lizentziak (obra lizentziak adb.)

**9. Artikulua. Erabilera berezia egitea**

Erabilera-eragiketek irauten bitartean, bideen egoeran jazoerarik gertatuko balitz, hau da: hausturarik, bide-zoruko kalterik, zuhaitz erorketarik eta konponketa, berritze edo gatazka ekar ditzakeen bestelako egoerarik gertatzekotan, Udalari honen berri eman beharko zaio berehalakoan; azken honek dagozkion neurriak hartuko ditu.

Erabilera berezia amaitutakoan, honen berri eman beharko dio interesdunak Udalari idatziz, eta bertan, gertatutakoak eta hartu diren premiazko neurriak adierazi, horrela badagokio.

Udalaren zerbitzu teknikoek bidearen egoerari buruzko ikuskapena egingo dute.

Ikuskapenaren emaitzaren arabera, hala badagokio, interesdunak egin beharreko konpontze- eta birjarpen-lanak erabakiko dira.

1.- Vehículos oruga, vehículos de cadenas, vehículos de más de dos ejes, o el arrastre de cualquier cosa por encima del firme o similares.

2.- Circular en caravana por encima de más de cuatro vehículos a motor.

**Artículo 8. Comunicación previa para hacer el uso especial**

En los casos considerados como usos especiales, con carácter previo al uso especial, los particulares y/o contratistas que deban utilizar los caminos deberán realizar la oportuna comunicación al Ayuntamiento. Dicha comunicación contendrá como mínimo:

- Datos identificativos del usuario.
- Vías a utilizar.
- Peso de los materiales o volumen de madera a transportar total
- Fecha de inicio y finalización del transporte
- En caso de acumulación de materiales, se indicará gráficamente en qué lugar (nombre y referencia catastral)
- En caso de aprovechamiento maderero, autorización de corta de madera y volumen de aprovechamiento.
- Otras licencias de autorización vinculadas al transporte (p.e. licencias de obra)

**Artículo 9. Ejecución del uso especial**

En el caso de que durante las operaciones de uso se produjeran incidencias en el estado de las vías, es decir, roturas, desperfectos en el firme, caídas de árboles y otras situaciones que pudieran dar lugar a reparaciones, renovaciones o conflictos, se comunicará inmediatamente al Ayuntamiento, que adoptará las medidas oportunas.

Una vez finalizado el uso especial, el interesado deberá comunicarlo por escrito al Ayuntamiento, indicando los hechos y las medidas urgentes que se hayan adoptado, en su caso.

Los servicios técnicos municipales realizarán una inspección del estado de la vía.

En función del resultado de la inspección, se acordarán, en su caso, las obras de reparación y reposición a realizar por el interesado.

**10. Artikulua. Egurra kargatzeko leku publikoen erabilera**

Egurra kargatzeko tokia, soilik, basoen ustiaketatik ateratako produktuak biltegiratzeko erabili ahal izango da. Ez da onartuko bestelako erabilerarik, Udal baimenik gabe bederen.

Egurra kargatzeko lekuen erabileran ondorengo baldintza orokorrak jarraitu beharko dira:

- Lanak egin bitartean auzobideen galtzada eta arekak beti erabiltzeko modu egokian eta garbi edukiko dira eta ibilgailuak errepidera sartu baino lehen galtzada ez zikintzeko neurri egokiak hartuko dira.
- Kargatzerakoan kamioak galtzadaren zati bat hartu behar badu, gainontzeko ibilgailuek igarotzeko aukera utzi beharko da eta obren seinalizazioari buruzko indarrean dagoen araudiari jarraituta behar bezala seinalizatuko da.
- Egurra kendu ondoren, egurra kargatzeko lekua eta auzobidea garbitu eta egokitu egin beharko dira, galtzada, arekak eta ezpondak barne. Betebehar hori garbiketa-kanonaren bidez salbuetsi ahal izango da, eta udalak urtero ezarri eta onartu ahal izango du bere Ordenantza Fiskalean.
- Materiala behar besteko segurtasunarekin pilatuko da, erortzeko arriskurik egon ez dadin.
- Egurra pilatzerako orduan, landareen osasuna bermatzeko neurriak bermatzeko indarrean dagoen araudia bete beharko da.

**11. Artikulua. Erabilera berezirako fidantza**

Herri Administrazioen Ondareari buruzko 33/2003 Legeak xedatutakoaren arabera, auzobideen edo egurra kargatzeko lekuen erabilera bereziaren jakinarazleari, ondasunaren erabileraren eta haren birjarpenaren edo konponketaren bermea eskatu ahal izango zaio.

Erabilera berezia egiteko aldez aurreko jakinarazpena aztertuta (garraiatu beharreko masa, ibilgailuen ezaugarriak, urtaroa, eguraldia…) Udalak fidantza jarri beharra erabaki ahalko du. Fidantzan ezarritako kopurua, auzobidearen erabileraren eta haren birjarpenareko edo konponketarako bermea izango da eta sor litezkeen kalteekiko proportzionala izango da.

Fidantza eskudirutan, txeketan edo balizko kalteen

**Artículo 10. Uso de los cargaderos públicos de madera**

El lugar de carga de madera sólo podrá utilizarse para el almacenamiento de productos procedentes de la explotación forestal. No se admitirán otros usos sin autorización municipal.

En el uso de los cargaderos de madera se deberán cumplir las siguientes condiciones generales:

- Durante la ejecución de los trabajos se mantendrá en todo momento la calzada y cunetas de los vecinos en perfecto estado de uso y limpieza y se adoptarán las medidas adecuadas para evitar el ensuciamiento de la calzada antes de la entrada de los vehículos a la carretera.
- Si durante la carga el camión va a ocupar parte de la calzada, se deberá permitir el paso de los demás vehículos y se señalizará correctamente de acuerdo con la normativa vigente sobre señalización de obras.
- Una vez retirada la madera, se deberá limpiar y acondicionar la zona de carga de madera y el camino vecinal, incluyendo calzada, cunetas y taludes. Esta obligación podrá eximirse mediante canon de limpieza que el ayuntamiento podrá establecer y aprobar anualmente en su Ordenanza Fiscal.
- Acopio del material con la seguridad necesaria para evitar riesgos de caídas.
- El acopio de madera se ajustará a la normativa vigente para garantizar las medidas de sanidad vegetal.

**Artículo 11. Fianza para uso especial**

En virtud de lo dispuesto en la Ley 33/2003, del Patrimonio de las Administraciones Públicas, al notificador para el uso especial de caminos rurales o lugares de carga de madera, podrá exigírsele la garantía del uso del bien y de su reposición o reparación.

Examinada la comunicación previa de uso especial (masa a transportar, características de los vehículos, estación del año, climatología), el Ayuntamiento podrá acordar la constitución de fianza. La cantidad establecida en la fianza será garantía del uso del camino y de su reposición o reparación y será proporcional a los perjuicios que pudiera causar.

La fianza podrá hacerse efectiva en metálico, cheques o avales bancarios responsables de posibles

erantzule den banku-abaletan egin ahal izango da. Era berean, udalaren aldez aurreko adostasunarekin, fidantza aseguru-poliza bidez egin ahal izango da.

Baimen bereziaren xede den jarduera amaitu ondoren, interesdunek jardueraren amaiera-adierazpena eta fidantza itzultzeko eskabidea aurkeztu beharko dituzte.

Fidantza itzultzeko prozedura ebazteko gehieneko epea hilabetekoa izango da, eskatzen denetik zenbatzen hasita. Epe hori igarotakoan berariazko ebazpenik ez emateak baiespen-ondorioak izango ditu. Fidantza itzultzeko eskaera onartu eta itzuli bitartean ezin izango da hilabete baino gehiago igaro.

## II.2. KONTSERBAZIOA ETA ZAINTZA

### 12. Artikulua. Mantentze-irizpideak

Udalaren ardura da behar bezala kontrolatzea errepide eta bideen egoera nolakoa den eta zer gorabehera eta kalte izan dituzten, eta, aldian behin, kontserbazio planak egitea eta bertan beraren kontura egin beharreko jarduketak adieraztea.

Bideak egoki erabiltzeko ardura erabiltzaileena izango da. Egunerokotasunean, erabiltzeek izango dute ardura bideetan antzemandako kalteak edo ezbeharrak Udalari jakinarazteko. Jakinarazpena ustekabea gertatu bezain pronto egingo da, Udalak beharrezkoak diren neurriak har ditzan eta kalte gehiago eta handiagorik sor ez dadin.

### 13. Artikulua. Kontserbazio eta konponketa lanak

Erabilera arruntaren ondorioz, istripu atmosferikoen eraginez eta kontserbazio-falta ez diren beste arrazoi batzuengatik sorturiko konponketa lanak Udalak egingo ditu, beti ere, Udal baliabideen arabera.

Kontserbazio planetan ekitaldi ekonomiko bakoitzean egin beharko diren jarduketak jasoko dira, besteak beste, honako gaien inguruan: lauguneak eta fabrika obrak zaintzea eta egokitzea, bidezoruak sendotzea eta birgaitzea, instalazioak, bide seinaleak eta balizak jartzea, etab.

Mantentze-lanak urtero auzo-alkateekin batera aztertu eta adostuko dira. Elkarren arteko lankidetza eta informazio-trukaketa bultzatuko da.

daños. Asimismo, con el acuerdo previo del ayuntamiento, la fianza podrá realizarse mediante póliza de seguro.

Una vez finalizada la actividad objeto de la autorización especial, los interesados deberán presentar la declaración de cese de la actividad y la solicitud de devolución de la fianza.

El plazo máximo para resolver el procedimiento de devolución de la fianza será de un mes desde su solicitud. La falta de resolución expresa transcurrido dicho plazo producirá efectos estimatorios. Entre la aceptación de la solicitud de devolución de la fianza y su devolución no podrá transcurrir más de un mes.

## II.2. CONSERVACIÓN Y VIGILANCIA

### Artículo 12. Criterios de mantenimiento

El Ayuntamiento es responsable del control del estado de conservación de los caminos y vías, de sus incidencias y afecciones, así como de la elaboración periódica de planes de conservación y de las actuaciones a realizar en los mismos por su cuenta.

La responsabilidad del uso adecuado de los caminos recaerá en los usuarios. En el día a día, los usuarios serán responsables de comunicar al Ayuntamiento los daños u omisiones detectados en las vías. La notificación se realizará en cuanto se produzca la incidencia, para que el Ayuntamiento tome las medidas necesarias y no se produzcan más y mayores daños.

### Artículo 13. Obras de conservación y reparación

Las reparaciones derivadas del uso común, de accidentes atmosféricos y de otros razones que no constituyan falta de conservación serán realizadas por el Ayuntamiento en función de los recursos municipales.

Los planes de conservación incluirán las actuaciones que deberán realizarse en cada ejercicio económico, entre otros, el mantenimiento y acondicionamiento de explanaciones y obras de fábrica, refuerzo y rehabilitación de firmes, instalaciones, señalización y balizamiento, etc..

El mantenimiento será analizado y consensuado anualmente con los alcaldes y alcaldesas vecinales. Se fomentará la cooperación mutua y el intercambio de información

**14. Artikulua. Kontserbazio falta**

Bidearen erabileran, kontserbazio desegoki baten ondorioz edota erabilera desegoki batengatik kalte-hondamendiak izaten direnean, horiek konpontzea mantentze arauak bete ez dituztenen ardura izango da.

## III. KAPITULUA. ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

**15. Artikulua. Eskubideak**

Ordenantza honen esparruan erabilera berezia eskatu duten titularrek eta garraioaren arduradunek honako eskubide hauek izango dituzte:

a) Aldez aurreko jakinarazpenean zehaztutako materialak udal-bideetatik garraiatzea, adierazitako baldintzetan eta kopuruetan.

b) Auzobidearen erabilera berezia egin ahal izateko, tokiko agintariei eta Udaltzaingoari behar bezalako babesa eskatzea.

c) Erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztea, baimendutako garraio-jarduera hobeto garatzeko.

**16. Artikulua. Betebeharrak**

1. Ordenantza honen esparruan auzobidearen erabilera bereziaren titularrek eta garraioaz arduratzen diren pertsonek, honako berezitasun hauek bete beharko dituzte:

a) Zirkulazioari kalterik ez egiteko behar diren neurri guztiak hartzea, bidea eta areka ezingo dira enborrekin edo zuhaitz-adarrekin, meategietako materialekin, harrobiekin edo antzeko beste batzuekin okupatu.

b) Bide publikotik kentzea ibilgailuak bide horretan uzten dituzten produktuak, hala nola harriak, adarrak eta abar.

c) Bidean doazen ibilgailuek ez dute hondakinik botako, hala nola gasolioa, olioa, lubrifikatzaileak eta abar. Ihes eginez gero, udal-agintaritzari jakinaraziko zaio.

d) Bide osoan dauden ur-arekak errespetatuko dira

e) Jarraian adierazten diren ibilgailuak erabiltzeko, kateak dituzten ibilgailuak (beldar-ibilgailuak)

**Artículo 14. Falta de conservación**

Cuando se produzcan daños catastróficos en el uso de la vía como consecuencia de una conservación inadecuada o de un uso inadecuado, su reparación correrá a cargo de quienes hayan incumplido las normas de mantenimiento.

## III. CAPÍTULO. DERECHOS Y OBLIGACIONES

**Artículo 15. Derechos**

Los titulares que hayan solicitado un uso especial y los responsables del transporte tendrán los siguientes derechos en el marco de la presente Ordenanza:

a) El transporte por las vías municipales de los materiales especificados en la comunicación previa, en los valores y cantidades indicados.

b) Solicitar de las autoridades locales y de la Policía Local la debida protección para el uso especial del camino rural.

c) Presentar reclamaciones y sugerencias para el mejor desarrollo de la actividad de transporte autorizado.

**Artículo 16. Obligaciones**

1. Los titulares del uso especial de los caminos rurales y las personas encargadas del transporte en el marco de esta ordenanza deberán cumplir las siguientes particularidades:

a) Adoptar todas las medidas necesarias para evitar afecciones a la circulación, no permitiendo la ocupación de la vía y cuneta con troncos o ramas de árboles, materiales mineros, canteras u otros análogos.

b) Retirada de la vía pública de los productos que depositen los vehículos en dicha vía, tales como piedras, ramas, etc.

c) Los vehículos que circulan por la vía no tirarán residuos tales como gasóleo, aceite, lubricantes, etc. En caso de fuga, se comunicará a la autoridad municipal.

d) Se respetarán las cunetas de agua existentes a lo largo de la vía.

e) Para la utilización de los vehículos que se indican a continuación, se adoptarán las medidas necesarias

auzobideari kalterik ez egiteko neurriak hartuko dira.

2. Bermatu beharko da bideen erabilera komuna eta publikoa ibilbide osoan, eta horretarako, aprobetxamenduak irauten duen bitartean behar diren garbiketa guztiak egin beharko dira, beren kontura eta baliabideekin; horrela, bide horiek garbitasun- eta ibilerraztasun-baldintzetan egongo dira uneoro.

para evitar la afección de los vehículos con cadenas en los caminos rurales (vehículos oruga).

2. Deberá garantizarse el uso común y público de las vías a lo largo de todo su recorrido, mediante la realización, por su cuenta y con sus deposiciones, de todas las limpiezas necesarias durante el período de aprovechamiento, de forma que dichas vías se encuentren en todo momento en condiciones de limpieza y accesibilidad.

## IV. KAPITULUA. IKUSKAPENA ETA KONTROLA

## IV. CAPÍTULO. INSPECCIÓN Y CONTROL

**17. Artikulua. Ikuskapena eta kontrola**

Udaleko zerbitzu teknikoek ikuskapen- eta kontrol-bisitak egingo dituzte, bidea Ordenantza honetan jasotako moduan erabiltzen dela egiaztatzeko. Kargatutako kamioien pisua eta bidearen garbitasun-egoera eskatu eta/edo egiaztatu ahal izango ditu, eta erabilera bereziaren erabiltzailea geldiarazi eta/edo zigortu ahal izango du.

**Artículo 17. Inspección y control**

Los servicios técnicos municipales realizarán visitas de inspección y control para comprobar el uso de la vía en los términos recogidos en esta Ordenanza. Podrá solicitar y/o comprobar el peso de los camiones cargados y el estado de limpieza de la vía, pudiendo detener y/o sancionar al usuario del uso especial.

## IV. KAPITULUA. ARAU HAUSTEAK ETA ZIGORRAK.

## IV. CAPÍTULO. INFRACCIONES Y SANCIONES.

**18. Artikulua Arau-hausteak**

Aplikatzekoak diren xedapen sektorialetan ezarritakoari kalterik gabe, arau-hauste administratibotzat hartuko dira ordenantza hau urratzen duten ekintzak, bai eta ordenantza hau aplikatzean udal administrazioaren edo bere agenteen aginduak eta eskakizunak ez betetzea dakartenak ere.

Administrazio-erantzukizuna izango dute hurrengo artikuluan xedatutako edozein arau-hauste egiten dutenek.

Erantzukizun administratiboa izango dute ondorengo ataletan sailkaturiko arau-hausteak egiten dituztenek.

**Artículo 18. Infracciones**

Sin perjuicio de lo establecido en las disposiciones sectoriales que resulten de aplicación, tendrán la consideración de infracciones administrativas las acciones que infrinjan la presente Ordenanza, así como las que supongan incumplimiento de las prescripciones y requisitos de la Administración municipal o de sus agentes en aplicación de la misma.

Incurrirán en responsabilidad administrativa por la comisión de cualquiera de las infracciones previstas en el artículo siguiente.

Responderán administrativamente quienes cometan las infracciones clasificadas en los apartados siguientes.

**19. Artikulua. Arau-hausteen tipifikazioa**

<u>1. Arau-hauste arintzat hartuko dira:</u>

a) Ibilgailu motordun astunak (7. art. erabilera berezia) aldez aurreko jakinerazpena egin gabe edo azaldutako erabilera ez den beste bat egiten ibiltzea, gerora legeztatu ahal direnean.

**Artículo 19. Tipificación de infracciones**

<u>1. Tendrán la consideración de infracciones leves:</u>

a) Que los vehículos de motor pesados (art. 7 uso especial) circulen sin haber realizado la comunicación previa o haciendo un uso distinto al descrito, cuando puedan legalizarse a posteriori.

b) Bidea bertatik igarotzea eragozten duten baldintzetan izatea.

c) Ordenantza honetan jasotako betebeharren bat ez betetzea, baldin eta ez badakarte inolako ondoriorik edo ondorio arina badakarte eragindako ekosistema, flora, fauna edo paisaiarentzat.

d) 30 km/h baino abiadura handiagoan zirkulatzea.

2. Arau-hauste larritzat hartuko dira:

a) Ibilgailuen edo pertsonen joan-etorrietarako arriskutsuak diren baldintzetan mantentzea bidea.

b) Ordenantza honetako betebeharrak ez betetzea, baldin eta ondorio larriak badakarzkio eragindako ekosistemari, florari, faunari edo paisaiari.

c) Bideko edozein elementu funtzional nahita xehatzea, zirkulazioaren antolamenduarekin, orientazioarekin eta segurtasunarekin zuzenean lotuta, edo bidearen ezaugarriak edo egoera nahita aldatzea.

d) Bideko edo bidearen egitura-elementuetako edozein obra edo instalazio nahita suntsitzea, hondatzea edo aldatzea.

e) Indarrean dagoen araudiak xedatutako mugak gainditzen dituen pisu edo zamarekin zirkulatzeagatik bidea kaltetzea edo hondatzea.

3. Arau-hauste oso larritzat hartuko dira:

a) Ordenantza honetako betebeharrak ez betetzea, baldin eta horrek eragindako ekosistema, flora, fauna edo paisaiarentzat ondorio oso larriak badakartza.

b) Bideko edozein elementu funtzional nahita hondatu edo suntsitzea, zirkulazioaren antolamenduarekin, orientazioarekin eta segurtasunarekin zuzenean lotuta, edo haren ezaugarriak edo egoera nahita aldatzea, dena delako elementuak bere eginkizuna betetzen jarraitzea eragozten denean.

c) Bideko edo bidearen egitura-elementuetako edozein obra edo instalazio nahita suntsitzea, hondatzea edo aldatzea, jarduketek galtzadari edo bazterbideei eragiten dietenean.

d) Indarrean dagoen araudiak xedatutako mugak gainditzen dituen pisu edo zamarekin zirkulatzeagatik bidea larriki hondatzea edo hondatzea.

b) Que se trate de circunstancias que impidan el paso por la vía.

c) El incumplimiento de alguna de las obligaciones contenidas en la presente Ordenanza, siempre que no impliquen ninguna consecuencia o la repercusión sea leve para el ecosistema, flora, fauna o paisaje afectado.

d) Circular a una velocidad superior a 30 km/h.

2. Tendrán la consideración de infracciones graves:

a) Mantener la vía en condiciones que resulten peligrosas para el tránsito de vehículos o personas.

b) El incumplimiento de las obligaciones de la presente Ordenanza, cuando se deriven consecuencias graves para el ecosistema, la flora, la fauna o el paisaje afectado.

c) El destrozo intencionado de cualquier elemento funcional de la vía, directamente relacionado con la ordenación, orientación y seguridad del tráfico, o la alteración deliberada de las características o condiciones de la vía.

d) La destrucción, deterioro o alteración intencionados de la vía o de sus elementos estructurales o de las obras o instalaciones.

e) Daño o deterioro de la vía por circular con peso o carga que exceda de los límites establecidos en la normativa vigente.

3. Tendrán la consideración de infracciones muy graves:

a) El incumplimiento de las obligaciones de la presente Ordenanza, cuando de ello se deriven consecuencias muy graves para el ecosistema, flora, fauna o paisaje afectados.

b) El destrozo o destrucción intencionada de cualquier elemento funcional de la vía, directamente relacionada con la organización, orientación y seguridad de la circulación, o la alteración deliberada de sus características o estado, cuando se impida que el elemento en cuestión continúe desempeñando su función.

c) La destrucción, deterioro o alteración intencionados de las obras o instalaciones de los elementos estructurales de la vía, cuando las actuaciones afecten a la calzada o a los apartaderos.

d) El deterioro grave de la vía causado por la circulación con peso o carga que exceda de los límites establecidos por la normativa vigente.

Ordenantza honek arautzen ez duen gainontzekoan, 2007ko urriaren 27ko Udal Plenoaren erabakiz onartutako «Oñatiko udalerrian zirkulazioko arau-hausteen araudia» arabera egingo da.

En lo no regulado por la presente Ordenanza, se regirá por el «Reglamento de infracciones de tráfico en el municipio de Oñati» aprobado por acuerdo del Pleno Municipal de 27 de octubre de 2007.

**20. Artikulua. Zigorrak**

1. Arau-hauste arinak ohartarazpenarekin eta/edo 100 eurotik 750 eurora bitarteko isunarekin zehatuko dira.

2. Arau-hauste larriak 751 eurotik 1.500 eurora bitarteko isunarekin zehatuko dira.

3. Arau-hauste oso larriak 1.501 eurotik 3.000 eurora bitarteko isunarekin zehatuko dira eta/edo auzobideetatik ibiltzea debekatuko zaie.

Lehen aurreikusitako isunez aparte, arau-hausleak Udalari errepidean eragindako kalteen eta bideetan egindako matxurengatik erabiltzaileei sortutako istripu edo bestelako eraginen zenbatekoaren kalte-ordaina emango dio.

**Artículo 20. Sanciones**

1. Las infracciones leves serán sancionadas con apercibimiento y/o multa de 100 a 750 euros.

2. Las infracciones graves serán sancionadas con multa de 751 a 1.500 euros.

3. Las infracciones muy graves serán sancionadas con multa de 1.501 a 3.000 euros y/o se les prohibirá circular por los caminos rurales.

Además de las multas previstas anteriormente, el infractor indemnizará al Ayuntamiento de los daños causados en la carretera y del importe de los accidentes u otros efectos causados a los usuarios por averías en las vías.

**21. Artikulua. Arau-hausteen mailaketa**

Zehapenak ezartzerakoan, arau-hausteа den egitatearen larritasunaren eta aplikatutako zehapenaren arteko egokitasuna gorde beharko da, honako irizpide hauek bereziki kontuan hartuta:

a) Nahitaezkoa izatea.

b) Eragindako kalteen izaera.

**Artículo 21. Graduación de las infracciones**

La imposición de sanciones deberá respetar la adecuación entre la gravedad del hecho constitutivo de la infracción y la sanción aplicada, con especial atención a los siguientes criterios:

a) Que haya sido forzosa.

b) La naturaleza de los daños causados.

**22. Artikulua. Prozedura**

Udalak ofizioz hasiko du ordenantzaren aginduen aurkako arau-husteak zigortzeko prozedura edo partikularrek egindako salaketaren ondorioz. Errepidearen eta bertako osagaien aurka egindako egintzak delitu edo falta izan daitezkeenean, Agintaritza judizial eskudunari dagokion txostena igorriko zaio, eta honek ebazpena ematen ez duen bitartean ez da salaketa prozedurarekin jarraituko.

**Artículo 22. Procedimiento**

El Ayuntamiento iniciará de oficio el procedimiento sancionador de las infracciones a los preceptos de la Ordenanza o como consecuencia de denuncia formulada por particulares. Cuando los actos cometidos contra la carretera y sus elementos puedan ser constitutivos de delito o falta, se remitirá el correspondiente informe a la Autoridad Judicial competente, que no continuará el procedimiento de denuncia mientras no recaiga resolución.

## GEHIGARRIZKO XEDAPENAK

**23. Artikulua Bat datorren araudia**

Ordenantza honek arautzen ez duen guztian Gipuzkoako Errepide eta Bideen Legearen Testu Bategina onartzen duen 2006ko ekainaren 6ko 1/2006 Foru Dekretuan eta dagozkion gainerako xedapen arauemaileetan xedatutakoa beteko da.

## DISPOSICIONES ADICIONALES

**Artículo 23. Normativa concordante**

En lo no regulado por la presente Ordenanza, se estará a lo dispuesto en el Decreto Foral 1/2006, de 6 de junio, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Carreteras y Caminos de Gipuzkoa y demás disposiciones normativas correspondientes.